  89-12 (Belauntza):
  X. 578.015 Y. 4.777.485 Z. 150

DESKRIBAPENA

Harrobiak ia guztiz desegin du haitzuloa. Hau galeria luze eta estu bat zen. Bere sarrera, arku modukoa, 4 m.takoa zen, oso baxua eta H.aldera zuzendua. Egun, azken zatia besterik ez da gelditzen, berehala estutu eta igaroezina bihurtzen dena.

HISTORIA

P. RODRIGUEZ ONDARRA-k aurkitu zuen 1960an. Honek eta I. BARANDIARAN-ek indusketa egin zuten urte berean. 1964an R. ELOSEGUI-k miaketa bat egin zuen aztarnategian. 1974an, F. PAYER-ek beste material batzuk jaso zituen azalean oraindik desegin gabe gelditutako haitzuloaren zatian.

MATERIALAK

Apaingailuak: Harrizko 49 kunder borobil.

Giza-hezurrak: Gutxienez 4 gizakiri dagozkienak: 2 heldu, gazte 1 eta haur 1.

Fauna-hezurrak:

Ugaztunak: *Ovis aries, Capra hircus/Ovis aries, Cervus elaphus, Meles meles.*

SEKUENTZIA KULTURALA

Kalkolitoa-Brontze Aroa.

SITUACION

* Belauntza.
* En la base del frente de la cantera situada frente a la papelera Elduayen, sobre la carretera de Tolosa a Berastegi.
* Hoja 89 (Tolosa):
  Long. 02º 02' 30" Lat. 43º 08' 45" Alt. 150 m.
  Hoja 89-12 (Belaunza):
  X. 578.015 Y. 4.777.485 Z. 150

DESCRIPCION

La cueva ha sido casi completamente destruida por una cantera. Consistía en una larga y estrecha galería, con una boca en forma de arco de unos 4 m. de anchura y muy baja, orientada al Sur. Actualmente sólo se conserva su tramo final, que enseguida se estrecha hasta hacerse impracticable.

HISTORIA

El yacimiento fue descubierto en 1960 por P. RODRIGUEZ ONDARRA. El mismo e I. BARANDIARAN efectuaron una excavación ese año. En 1964, R. ELOSEGUI efectuó una prospección en el yacimiento. En 1974, F. PAYER recogió en superficie algunos materiales más, en la parte de la cueva que todavía se conservaba.

MATERIALES

Objetos de adorno: 49 cuentas discoidales de piedra.

Restos humanos: Correspondientes al menos a 4 individuos: 2 adultos, 1 juvenil y 1 infantil.

Restos faunísticos:

Mamíferos: *Ovis aries, Capra hircus/Ovis aries, Cervus elaphus, Meles meles.*

SECUENCIA CULTURAL

Calcolítico-Bronce.

BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, J. (1972)

ALTUNA, J.; MARIEZKURRENA, K.; ARMENDARIZ, A. et al. (1982)

APELLANIZ, J. M. (1973a)

ARMENDARIZ, A. & ETXEBERRIA, F. (1983)

BARANDIARAN, I. (1967a)

GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKOA

II. Haitzuloak

CARTA ARQUEOLOGICA DE GIPUZKOA

II. Cuevas

J. ALTUNA, A. ARMENDARIZ, F. ETXEBERRIA, K. MARIEZKURRENA, X. PEÑALVER & F. ZUMALABE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Historiaurrea Saila / Departamento de Prehistoria
Sociedad de Ciencias ARANZADI Zientzi Elkartea

MUNIBE (Antropologia - Arkeologia)	10. eranskina Suplemento nº 10	DONOSTIA SAN SEBASTIAN	1995	ISSN 1132-2217

AITZELAR

MOTA: Haitzuloa ZB: 587
SIGLA A.Lar.
U.M.: Zestoa
MAPA ZB: 63-4.587

TIPO: Cueva Nº: 587
SIGLA: A.Lar.
T.M.: Zestoa
MAPA Nº: 63-4.587

KOKAPENA

* Zestoa, Aizarna auzoa.
* Alzolaraz haranaren burualdean, M.aldeko magalean, Errota Barrenatik 800 m.tara Astui baserriko norabidean, bidearen azpian eta labarraren goialdean.
* 63 Orr.(Eibar):
  Long. 02º 11' 23" Lat. 43º 12' 53" Alt. 227 m.
  63-48 Orr.(Zestoa):
  X. 565.901 Y. 4.785.174 Z. 227

DESKRIBAPENA

Labarraren erdian irekitzen den 4 m.tako sakonera eta zolu ezregularra duen aterpe harkaiztsu bat da. E.aldera zuzendutako haitzuloaren sarrerak 1 m. zabal eta 5 m. altu ditu. Zoruak kanporuntz duen desnibelak eta simaurraren erauzketa lanak badirudi aztarnategiaren potentzia gutxitu nahi dutela.

HISTORIA

1978an aurkitu zuten Azpeitiako Antxieta Taldekoek. Urte berean azaleko miaketa bat egin zuten eta beste bi kata ere 1983an.

MATERIALAK

Superficie:

Harri-industria: Ukitutako ijeljian eginiko marruska 1; zulakaitz diedro 1.

Giza-hezurrak: Gizaki heldu bate hortz 1.

Fauna-hezurrak:

Ugaztunak: *Lynx.*

Moluskuak: *Patella.*

Hegaztiak.

1. Kata:

Fauna-hezurrak:

Ugaztunak: *Capra pyrenaica, Canis familiaris.*

Hegaztiak.

2. Kata:

Harri-industria: Muxarduradun printza 1.

Fauna-hezurrak

Ugaztunak: *Capra sp.*

SEKUENTZIA KULTURALA

Zehaztugabea.

SITUACION

* Zestoa, barrio de Aizarna.
* En la cabecera del valle del Alzolaraz, en su vertiente occidental, a unos 800 m. desde el caserío Errota Barrena en dirección al caserío Astui, bajo el camino y sobre el acantilado.
* Hoja 63 (Eibar):
  Long. 02º 11' 23" Lat. 43º 12' 53" Alt. 227 m.
  Hoja 63-48 (Cestona):
  X. 565.901 Y. 4.785.175 Z. 227

DESCRIPCION

Abrigo rocoso de unos 4 m. de profundidad y piso irregular, colgado sobre el acantilado, al que se abre por una boca de unos 13 m. de anchura y 5 m. de altura, orientada al Este. El desnivel del suelo hacia el exterior y la extracción de estiércol parecen haber mermado la potencia del yacimiento.

HISTORIA

El yacimiento fue descubierto en 1978 por miembros del Grupo Antxieta de Azpeitia, quienes realizaron una prospección superficial ese año y dos catas en 1983.

MATERIALES

Superficie:

Ind. lítica: 1 raspador sobre lámina retocada; 1 buril diedro.

Restos humanos: 1 diente de individuo adulto.

Restos faunísticos:

Mamíferos: *Lynx.*

Moluscos: *Patella.*

Aves.

Cata 1:

Restos faunísticos:

Mamíferos: *Capra pyrenaica, Canis familiaris.*

Aves.

Cata 2:

Ind. lítica: 1 lasca con escotadura.

Restos faunísticos:

Mamíferos: *Capra sp.*

SECUENCIA CULTURAL

Indeterminada.

BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, J. (1990a)

AITZELAR

GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKOA

II. Haitzuloak

CARTA ARQUEOLOGICA DE GIPUZKOA

II. Cuevas

J. ALTUNA. A. ARMENDARIZ, F. ETXEBERRIA, K. MARIEZKURRENA, X. PEÑALVER & **F.** ZUMALABE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Historiaurrea Saila / Departamento de Prehistoria
Sociedad de Ciencias ARANZADI Zientzi Elkartea

MUNIBE (Antropologia - Arkeologia)	10. eranskina Suplemento nº 10	DONOSTIA SAN SEBASTIAN	1995	ISSN 1132-2217

ALABIER II

MOTA: Haitzuloa ZB: 588
SIGLA: Alab.II.
UDALA: Azpeitia
MAPA ZB: 63-4.588

TIPO: Cueva Nº: 588
SIGLA: Alab.II.
T.M.: Azpeitia
MAPA Nº: 63-4.588

KOKAPENA

* Azpeitia.
* Azpeitiko erdigunetik IM-alderuntz dagoen Alabier baserritik 250 bat m. bidetik Iparralderuntz egin ondoren, bide honen goialdean 50 m.tara.
* 63. Orr.(Eibar):
  Long. 02º 15' 45" Lat. 43º 11' 50" Alt. 380 m.
  63-55. Orr.(Azpeitia):
  X. 559.673 Y. 4.783.024 Z. 380

DESKRIBAPENA

Sapai baxuko 5 m. karratuko gelatxo bat besterik ez da haitzuloa. HE-aldera zuzendua dagoen triangelu moduko sarrera batetik (1,20 m. x 1 m.) iristen da bertara.

HISTORIA

Azpeitiko Antxieta taldeko kideek aurkitu zuten 1981ean eta bertan kata bat egin zuten.

MATERIALAK

Giza-hezurrak: Gizabanako heldu baten garezur zati 1.

SEKUENTZIA KULTURALA

Zehaztugabea.

SITUACION

* Azpeitia.
* Unos 250 m. al Norte del caserío Alabier, situado al NO. del casco de Azpeitia, a unos 50 m. del camino y sobre éste.
* Hoja 63 (Eibar):
  Long. 02º 15' 45" Lat. 43º 11' 50" Alt. 380 m.
  Hoja 63-55 (Azpeitia):
  X. 559.673 Y. 4.783.024 Z. 380

DESCRIPCION

La cueva consiste en una Única y reducida salita de unos 5 m^2., de techo bajo. Se accede a ella por una boca triangular, orientada al SE., de 1,20 m. de anchura por 1 m. de altura.

HISTORIA

El yacimiento fue descubierto en 1981 por miembros del Grupo Antxieta de Azpeitia, quienes practicaron una cata.

MATERIALES

Restos humanos: 1 fragm. de cráneo de individuo adulto.

SECUENCIA CULTURAL

Indeterminada.

BIBLIOGRAFIA

ARMENDARIZ, A. & ETXEBERRIA, F. (1983)



ALABIER II

GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKOA

II. Haitzuloak

CARTA ARQUEOLOGICA DE GIPUZKOA

II. Cuevas

J. ALTUNA. A. ARMENDARIZ, F. ETXEBERRIA, K. MARIEZKURRENA, X. PEÑALVER & F. ZUMALABE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Historiaurrea Saila / Departamento de Prehistoria
Sociedad de Ciencias ARANZADI Zientzi Elkartea

MUNIBE (Antropologia-Arkeologia)	10.eranskina Suplemento nº 10	DONOSTIA SAN SEBASTIAN	1995	ISSN 1132-2217

OLATZAZPI

MOTA: Haitzuloa ZB: 589
SIGLA: Ola.T.
UDALA: Alkiza
MAPA ZB: 64-3.589

TIPO: Cueva Nº: 589
SIGLA: Ola.T.
T.M.: Alkiza
MAPA Nº: 64-3.589

KOKAPENA

* Alkiza.
* Zabal-barrena eta Zabal-rekondo baserrietatik Sarobera doan bidean 500 m. egin ondoren, bidearen ezkerraldean, 10 m. gorago, pagadi batean.
* 64 Orr.(Donostia):
  Long. 02º 05' 05" Lat. 43º 10' 38" Alt. 245 m.
  64-59 Orr.(Alkiza):
  X. 574.416 Y. 4.781.081 Z. 245

DESKRIBAPENA

1,5m. altuera eta 1,5 m. zabalera duen sarrera txiki bat du haitzuloak, HE.aldera zuzendutakoa. Beheraka doan arrapala motz batetik, gela ezregular handi batera iritsi daiteke. gela hau horizontala eta sapai baxukoa da. Guztira 13 m.tako luzera du haitzuloak.

HISTORIA

I. LOPEZ MENDIZABAL-ek aurkitu zuen aztarnategia 1920. urtea baino lehentxeago, azaleko materialak jaso zituelarik. 1927an T. DE ARANZADI-k eta J.M. DE BARANDIARAN-ek kata batzu egin zituzten (antzuak izan zirenak) eta azalean material gehiago jaso zuten.

MATERIALAK

Harri-industria: Suharrizko aizto 1 (galdua)

Hezur-industria: Basurdearen letaginatik ateratako ijelki 1.

Zeramika: Oindun eta lepo altuko ontzi oboideo leundu 1; Itxuragabeko 3 zati.

Giza-hezurrak: 3 laguni gutxienez dagozkienak: 2 heldu eta haur 1.

Fauna-hezurrak:

Ugaztunak: *Cervus elaphus.*

Hegaztiak.

SEKUENTZIA KULTURALA

Brontze Garatua.

OHARRAK

ARANZADI, BARANDIARAN eta EGUREN-en lehenengo txostenean (1923) Apeztegibaso izenarekin ezagutzera eman zuten.

SITUACION

* Alkiza.
* A unos 500 m. por el camino que desde los caseríos Zabal-barrena y Zabal-rekondo se dirige al caserío Sarobe, en un hayedo, unos 10 m. por encima y a la izquierda del camino.
* Hoja 64 (San Sebastián):
  Long. 02º 05' 05" Lat. 43º 10' 38" Alt. 245 m.
  Hoja 64-59 (Alquiza):
  X. 574.416 Y. 4.781.081 Z. 245

DESCRIPCION

La cueva tiene una entrada pequeña, orientada al SE., de 1,5 m. de anchura y altura. Mediante una corta rampa descendente se accede a una amplia sala irregular, horizontal y de techo bajo. Alcanza una longitud total de 13 m.

HISTORIA

El yacimiento fue descubierto poco antes de 1920 por I. LOPEZ MENDIZABAL, quien realizó una recogida superficial. En 1927 T. DE ARANZADI y J.M. DE BARANDIARAN llevaron a cabo catas (que resultaron estériles) y nuevas recogidas superficiales.

MATERIALES

Ind. lítica: 1 "cuchillo" de sílex (perdido).

Ind. ósea: 1 lámina recortada de colmillo de jabalí.

Cerámica: 1 vaso ovoideo de cuello alto y con pie, bruñido; 3 fragms. informes.

Restos humanos: Correspondientes al menos a 3 individuos: 2 adultos y 1 infantil.

Restos faunísticos:

Mamíferos: *Cervus elaphus.*

Aves.

SECUENCIA CULTURAL

Bronce avanzado.

OBSERVACIONES

La cueva es citada en la primera memoria de ARANZADI, BARANDIARAN y EGUREN (1923) como Apeztegibaso.

BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, J. (1972)

ALTUNA, J.: MARIEZKURRENA, K.; ARMENDARIZ, A. et al (1982)

APELLANIZ, J.M. (1973a)

ARANZADI, T. DE; BARANDIARAN, J.M. DE & EGUREN, E. (1923)

ARANZADI, T. DE & BARANDIARAN, J.M. DE (1928)

ARMENDARIZ, A. & ETXEBERRIA, F. (1983)

BARANDIARAN, J.M. DE (1946)

BARANDIARAN, J.M. DE (1953)

MUJIKA, J.A. (1983)

SECCION DE ESPELEOLOGIA DE ARANZADI (1969)



OLATZAZPI

GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKOA
II. Haitzuloak

CARTA ARQUEOLOGICA DE GIPUZKOA
II. Cuevas

J. ALTUNA, A. ARMENDARIZ, F. ETXEBERRIA, K. MARIEZKURRENA, X. PEÑALVER & F. ZUMALABE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Historiaurrea Saila / Departamento de Prehistoria
Sociedad de Ciencias ARANZADI Zientzi Elkartea

MUNIBE (Antropologia - Arkeologia)	10. eranskina Suplemento nº 10	DONOSTIA SAN SEBASTIAN	1995	ISSN 1132 - 2217

AIZKOATE

MOTA: Haitzuloa ZB: 590
SIGLA: Akt.
UDALA: Hernialde
MAPA ZB: 89-1.590

TIPO: Cueva Nº: 590
SIGLA: Akt.
T.M.: Hernialde
MAPA Nº: 89-1.590

KOKAPENA

* Hernialde.
* Mendigaingo HE-aldeko maldan, Agarre eta Muñaundieta baserriko erdibidearen eskuinaldean.
* 89. Orr.(Tolosa):
  Long. 02º 05' 29" Lat. 43º 09' 18" Alt. 299 m.
  89-3. Orr. (Hernialde):
  X. 573.850 Y. 4.778.662 Z. 299

DESKRIBAPENA

Haitzuloaren sarrera zabala da eta HE-aldera zuzendua dago. 4 m.ko zabalera eta 3m.ko altuera du. Berehala bi galeriatan banatzen da, eta leize eta tximini zabalak aurki daitezke. 150 m.tako luzera du. Egun itxita dago, eta haitzuloaren sarrera Muñandietako baserriko jabeek garaje gisa erabiltzen dute.

HISTORIA

1917an H. BREUIL-ek aurkitu zuen, azaleko materialak jasoaz.

MATERIALAK

Harri-industria: Aizkora leundu 1 (galdua).

SEKUENTZIA KULTURALA

Paleolito Ondorengoa.

SITUACION

* Hernialde.
* En la ladera SE. de Mendigain, a mitad de distancia entre los caseríos Agarre y Muñaundieta, al borde derecho del camino que los une.
* Hoja 89 (Tolosa):
  Long. 02º 05' 29" Lat. 43º 09' 18" Alt. 299 m.
  Hoja 89-3 (Hernialde):
  X. 573.850 Y. 4.778.662 Z. 299

DESCRIPCION

La cueva tiene una entrada relativamente amplia orientada al SE., de 4m. de anchura por 3 m. de altura, que enseguida se bifurca en dos galerías, con algunas simas y amplias chimeneas. Alcanza una longitud total de 150 m. Actualmente se encuentra cerrada y su parte inicial habilitada como garaje por los propietarios del cercano caserío Muñaundieta.

HISTORIA

El yacimiento fue descubierto en 1917 por H. BREUIL, quien realizó una recogida superficial.

MATERIALES

Ind. lítica: 1 hacha de piedra pulimentada (perdida).

SECUENCIA CULTURAL

Postpaleolítico.

BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, J.; MARIEZKURRENA, K.; ARMENDARIZ, A. et al. (1982)

BOLIVAR, C.; BREUIL, H.; & JEANNEL, R. (1918-27)

SECCION DE ESPELEOLOGIA DE ARANZADI (1969)



AIZKOATE

GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKOA

II. Haitzuloak

CARTA ARQUEOLOGICA DE GIPUZKOA

II. Cuevas

J. ALTUNA, A. ARMENDARIZ, F. ETXEBERRIA, K. MARIEZKURRENA, X. PEÑALVER & F. ZUMALABE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Historiaurrea Saila / Departamento de Prehistoria
Sociedad de Ciencias ARANZADI Zientzi Elkartea

MUNIBE (Antropologia-Arkeologia)	10. eranskina Suplemento nº 10	DONOSTIA SAN SEBASTIAN	1995	ISSN 1132-2217

MARIZULO

MOTA: Haitzuloa ZB: 591
SIGLA: M.
UDALA: Urnieta
MAPA ZB: 64-4.591

TIPO: Cueva Nº: 591
SIGLA: M.
T.M.: Urnieta
MAPA Nº: 64-4.591

KOKAPENA

* Urnieta, Goiburu auzoa.
* Besabi inguruan dagoen Marizulo baserriaren atzealde eta azpialdean, Adarra mendiaren oinean.
* 64 Orr.(Donostia):
  Long. 01º 58' 28" Lat. 43º 13' 11" Alt. 295 m.
  64-46 Orr.(Urnieta):
  X. 583.293 Y. 4.785.886 Z. 295

SITUACION

* Urnieta, barrio de Goiburu.
* Detrás y bajo el caserío Marizulo, próximo a Besabi, al pie del monte Adarra.
* Hoja 64 (San Sebastián):
  Long. 01º 58' 28" Lat. 43º 13' 11" Alt. 295 m.
  Hoja 64-46 (Urnieta):
  X. 583.293 Y. 4.785.886 Z. 295

DESKRIBAPENA

5 m. sakon besterik ez duen haitzulo txiki bat da. Zenbait sarrera estu ditu, beraien arten loturiko galeriatxo multzo baten itxura hartzen duelarik. HE.aldera begiratzen duen galeria nagusiaren sarrerak (non aztarnategia aurkitua izan zen), 2,5 m.ko zabalera eta, 3,5 m.ko altuera du.

DESCRIPCION

Es una cueva pequeña, de unos 5 m. de profundidad. Tiene varias entradas muy estrechas, por lo que ofrece el aspecto de una serie de pequeñas galerías o covachos conectados entre sí. La boca de la galería principal, donde se encontraba el yacimiento, está orientada al SE. y mide 2,5 m. de anchura por 3, 5 m. de altura.

HISTORIA

1961an aurkitu zuen aztarnategia M. LABORDE-k eta azaleko materiala jaso zuen. Urte berean, J.M. MERINO-k kata bat egin zuen. 1962tik 1965era M. LABORDE, J.M. DE BARANDIARAN eta J. ALTUNA-k egin zuten indusketa nagusia.

HISTORIA

El yacimiento fue descubierto en 1961 por M. LABORDE, quien realizó una recogida superficial. Ese mismo año, J.M. MERINO practicó una cata. El yacimiento fue definitivamente excavado de 1962 a 1965 por M. LABORDE, J.M. DE BARANDIARAN y J. ALTUNA.

MATERIALAK

I Maila(¿Neolitoa? eta Kalkolitoa/Brontze Aroa):

Harri-industria: 7 marruska; zulakaitz 1; 4 trunkadura; 4 horztun; karraskailu 1; ukiera estaltzaileko "zizeilu" 1; iruki 1; zirkulu-segmentu 1; 5 printza edo ijelki zati ukituak.

Hezur-industria: Orein hezurrez eginiko 2 espatula; ezten zati 1; hezur zati zorroztu 1; adar punta zulatu 1; orein adar punta leundu 1; 2 orein adar zati zerratuak; basurde letagin bat leuntze arrastorekin.

Zeramika: Lepo eta hondo launeko ontzi oboideo baten zatiak; 5 katiluen zatiak; 9 ertz-zati, horietako lau intzisioz edo hatzduraz apainduak; intzisioz apaindutako zati 1; itxuragabeko zati asko.

Apaingailuak: Kupelatxo eiteko harrizko 2 kunder handi; lignitozko kupelatxo eiteko kunder 1; harri berdaxkazko kunder diskoidal 1; hezurrezko 3 kunder diskoidal.

Bestelakoak: Harearrizko uharri 1 (¿errotarria?); okre zatiak; 3 kuartzo pusketa; ¿oligistozko? kanika 1; erabilpen arrastoak dituen uharri 1; ofitazko uharri 1 erabilpen arrastorekin.

MATERIALES

Nivel I (¿Neolítico? y Calcolítico/Bronce):

Ind. lítica: 7 raspadores; 1 buril; 4 truncaduras; 4 denticulados; 1 raedera; 1 "cincel" con retoque invasor; 1 triángulo; 1 segmento de círculo; 5 lascas o fragms. de láminas retocadas.

Ind. ósea: 2 espátulas en huesos de ciervo; 1 fragm. de punzón; 1 esquirla aguzada; 1 fragm. de asta perforado parcialmente; 1 pitón de asta de ciervo pulimentado; 2 fragms. de vara de asta de ciervo serradas; 1 colmillo de jabalí con huellas de abrasión.

Cerámica: Fragms. de un vaso ovoideo con cuello y fondo plano; Fragms. de 5 cuencos; 9 fragmentos de bordes, cuatro de ellos decorados con incisiones o digitaciones; l fragm. decorado con incisiones; numerosos fragms. informes.

Objetos de adorno: 2 grandes cuentas de tonelete de piedra; 1 cuenta de tonelete de lignito; 1 cuenta discoidal de piedra verdosa; 3 cuentas discoidales planas de hueso.

Varios: 1 canto (¿moledera?) de arenisca; fragms. de ocre; 3 cristales de roca; 1 esferita de ¿oligisto?; 1 canto rodado con huellas de uso; 1 canto de ofita desgastado por uso.

Giza-hezurrak: Gutxienez 4 gizakienak: 2 heldu, gazte 1 eta haur 1. Gainera maila honetako oinaldean 25 urteko gizon baten ehorzketa bakarra aurkitu zen.

Fauna-hezurrak:

Ugaztunak *Ovis aries* (8.4%), *Ovis aries/Capra hircus* (8.4), *Canis familiaris* (16.21, *Cervus elaphus* (39.21, *Capreolus capreolus* (7.6), *Capra pyrenaica* (1.6), *Rupicapra rupicapra* (0.3), *Sus scrofa* (15.7), *Meles meles* (4.3), *Martes martes* (0.5), *Putorius putorius* (0.8), *Lutra lutra* (0.3), *Felix silvestris* (0.8).

Moluskuak: *Patella, Mytilus, Tapes, Ostrala, Monodonta.*

II Maila (Neolitoa):

Harri-industria: 6 marruska; 3 zulagailu; 2 zulakaitz; trunkadura 1; bi ertzetan ukiera ia malkartsua duen ijelkitxo 1; 7 ijelki edo ijelkitxo horztun; karraskailu 1; 2 printza ukitu; 2 ijelki-zati ukitu; kuartzo zati ukitu 1.

Hezur-industria: Orein hezurrez eginiko espatula 1; adar putez eginiko leungailu 1; Hildo luzeko ezten 1; ezten zati 1; 4 hezur-zati zorroztu; arrastoak dituen hezur 1; ebakuntz arrastoak dituen orein adar punta 1.

Bestelakoak: 4 kuartzo beira; suharrizko kanika 1; harrizko perkutotre 1; errotarri 1; erabilpen ukierak dituen hareharri 1.

Fauna-hezurrak:

Ugaztunak: *Canis familiaris* (0.3 %), *Cervus elaphus* (54.8), *Capreolus capreolus* (12.6), *Capra pyrenaica* (1.4), *Sus scrofa* (25.2), *Canis lupus* (1.2), *Meles meles* (83.6), *Martes martes* (0.5), *Putorius putorius* (0.3), *Felix silvestris* (0.3).

Moluskuak: *Patella, Mytilus, Ostrala, Solen, Pholax, Helix nemoralis.*

III Maila(Epipaleolito berantiarra):

Harri-industria: 4 marruska; kuartzozko ¿zulakaitz? 1; trunkadura 1; 3 ijelki edo ijelkitxo horztun; ukiera malkartsuko 2 printza ; 2 gune

Hezur-industria: Punta 1; ezten zati 1; hezur zati zorroztu 1; adarrezko ziri 1; kitten 1; basurde letagin zerratu eta leundu 1; lan arrastoa duten 4 orein adar-zati.

Bestelakoak: 2 kuartzo beira; erabilpen ukiera duen harearri 1.

Fauna-hezurrak (III. eta IV. Maila):

Ugaztunak: *Cervus elaphus* (54.9 %), *Capreolus capreolus* (19.7), *Capra pyrenaica* (52.0), *Sus scrofa* (12.1) *Canis lupus* (1.7), *Meles meles* (4.1), *Martes martes* (1.7), *Lutra lutra* (0.6).

Moluskuak: *Patella, Scrobicularia, Monodonta, Helix nemoralis.*

IV. Maila (Epipaleolito berantiarra):

Harri-industria: 2 marruska; 2 zulagailu; 2 koskadun printza ; printza ukitu 1.

Hezur-industria: Hildo luze bikoitzeko punta 1 (galdua); punta I; hezur zati zorroztu I; basurde letaginez eginiko ijelkia, leuntze arrastorekin; orkatz adar punta ebaki 1.

Bestelakoak: Erabilpen ukieradun koartzita 1.

SEKUENTZIA KULTURALA

Epipaleolito berantiarra, Neolitoa, Kalkolitoa-Brontze Aroa.

KRONOLOGIA

I. Mailako Ehorzketa: 5.285-65 B.P. (GrN-5992). ¿Neolitoa?

Restos humanos: Correspondientes al menos a 4 individuos: 2 adultos, 1 juvenil y 1 infantil. Además, existe, en la base del nivel una inhumación individual, de un individuo masculino de unos 25 años de edad.

Restos faunísticos:

Mamíferos: *Ovis aries* (8.4 %), *Ovis aries/Capra hircus* (8.4), *Canis familiaris* (16.2), *Cervus elaphus* (39.2), *Capreolus capreolus* (7.6), *Capra pyrenaica* (1.6), *Rupicapra rupicapra* (0.3), *Sus scrofa* (15.7), *Meles meles* (4.3), *Martes martes* (0.5), *Putorius putorius* (0.8), *Lutra lutra* (0.3), *Felix silvestris* (0.8).

Moluscos: *Patella, Mytilus, Tapes, Ostrala, Monodonta.*

Nivel II (Neolítico):

Ind. lítica: 6 raspadores; 3 perforadores; 2 buriles; 1 truncadura; 1 laminilla con retoque semiabrupto en ambos bordes; 7 láminas o laminillas denticuladas; 1 raedera; 2 lascas retocadas; 2 fragms. de láminas retocadas; 1 fragm. de cristal de roca retocado.

Ind. ósea: 1 espátula en hueso de ciervo; 1 alisador de asta; 1 punzón con surco longitudinal; 1 fragm. de punzón; 4 esquirlas aguzadas; 1 hueso con marcas; 1 fragm. de candil de ciervo con huellas de recortes.

Varios: 4 cristales de roca; 1 esferoide de sílex; 1 percutor de piedra; 1 moledera; 1 canto de arenisca con huellas de uso.

Restos faunísticos:

Mamíferos: *Canis familiaris* (0.3 %), *Cervus elaphus* (54.8), *Capreolus capreolus* (12.6), *Capra pyrenaica* (1.4), *Sus scrofa* (25.2), *Canis lupus* (1.2), *Meles meles* (83.6), *Martes martes* (0.5), *Putorius putorius* (0.3), *Felix silvestris* (0.3).

Moluscos: *Patella, Mytilus, Ostrala, Solen, Pholax, Helix nemoralis.*

Nivel III (Epipaleolítico tardío):

Ind. lítica: 4 raspadores; 1 ¿buril? en cristal de roca; 1 truncadura; 3 láminas o laminillas denticuladas; 2 lascas con retoque abrupto; 2 núcleos.

Ind. ósea: 1 punta; 1 fragm. de punzón; 1 esquirla aguzada; 1 cuña de asta; 1 mango; 1 colmillo de jabalí serrado y pulimentado; 4 fragms. de asta de ciervo con huellas de trabajo.

Varios: 2 cristales de roca; 1 canto de arenisca con huellas de uso.

Restos faunísticos (niveles III y IV):

Mamíferos: *Cervus elaphus* (54.9 %), *Capreolus capreolus* (19.7), *Capra pyrenaica* (52.0), *Sus scrofa* (12.1) *Canis lupus* (1.7), *Meles meles* (4.1), *Martes martes* (1.7), *Lutra lutra* (0.6).

Moluscos: *Patella, Scrobicularia, Monodonta, Helix nemoralis.*

Nivel IV (Epipaleolítico tardío):

Ind. lítica: 2 raspadores; 2 perforadores; 2 lascas con muesca; 1 lasca retocada.

Ind. ósea: 1 punta doble con surco longitudinal (perdida); 1 punta; 1 esquirla aguzada; 1 lámina de colmillo de jabalí con huellas de abrasión; 1 pitón de corzo con recortes.

Varios: 1 canto de cuarcita con huellas de uso.

SECUENCIA CULTURAL

Epipaleolítico tardío, Neolítico, Calcolítico-Bronce.

CRONOLOGIA

Sepultura Nivel I: 5.285-65 B.P. (GrN-5992). ¿Neolítico?

BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, J. (1967b)

ALTUNA, J. (1972)

ALTUNA, J. (1979b)

ALTUNA, J. (1980)

ALTUNA, J.; MARIEZKURRENA, K.; ARMENDARIZ, A. et al. (1982)

APELLANIZ, J.M. (1973a)

ARMENDARIZ, A. & ETXEBERRIA, F. (1983)

BARANDIARAN, I. (1967c)

BASABE, J.M. (1971)

BEGUIRISTAIN, M.A. (1982)

CAVA, A. (1978)

LABORDE, M. (1965)

LABORDE, M.; BARANDIARAN, J.M. DE; ATAURI, T. & ALTUNA, J. (1965)

LABORDE, M.; BARANDIARAN, J.M. DE; ATAURI, T. & ALTUNA, J. (1966)

LABORDE, M.; BARANDIARAN, J.M. DE; ATAURI, T. & ALTUNA, J. (1967)

MARIEZKURRENA, C. (1990)

MARIEZKURRENA, K. (1979)

MARSAN, G. (1972)

MERINO, J.M. (1965)

MUJIKA, J.A. (1983)



MARIZULO

GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKOA

II. Haitzuloak

CARTA ARQUEOLOGICA DE GIPUZKOA

II. Cuevas

J. ALTUNA. A. ARMENDARIZ, F. ETXEBERRIA, K. MARIEZKURRENA, X. PEÑALVER & F. ZUMALABE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Historiaurrea Saila / Departamento de Prehistoria
Sociedad de Ciencias ARANZADI Zientzi Elkartea

MUNIBE (Antropologia - Arkeologia)	10. eranskina Suplemento nº 10	DONOSTIA SAN SEBASTIAN	1995	ISSN 1132-2217

URNIETA

MOTA: Haitzuloa ZB: 592
SIGLA: Urn.58
UDALA: Urnieta
MAPA ZB: 64-4.592

TIPO: Cueva Nº: 592
SIGLA: Urn.58
T.M.: Urnieta
MAPA Nº: 64-4.592

KOKAPENA

* Urnieta.
* Elorrilla mendi tontorrean, izen bereko baserriaren 240 m. IM.aldera, Urnietako Elizatik km. 1 MHM.aldera.
* 64 Orr.(Donostia):
  Long. 02º 00' 07" Lat. 43º 14' 43" Alt. 240 m.
  64-37 Orr (Urnieta):
  X. 581.032 Y. 4.788.738 Z. 240

DESKRIBAPENA

Haitzuloaren sarrera metro bat altu eta metro erdiko zabalerakoa da. Sarreraren atzean 7 m.tako salto bat dago. Behean, gelatxo batetik 4 galeria estu sortzen dira. Guztira 80 m.ko bilakaera du.

HISTORIA

F. LEIZAOLA-k aurkitu zuen aztarnategia 1964an, eta azaleko aztarnak jaso zituen. J.M. BARRENA-k azaletik aztarna gehiago jaso zuen 1973an.

MATERIALAK

Fauna-hezurrak:

Ugaztunak: *Rupicapra rupicapra, Ursus, Crocuta crocuta, Panthera spelaea.*

KRONOLOGIA

Goi Pleistozenoa.

SITUACION

* Urnieta.
* En la cima del monte Elorrilla, a unos 240 m. al NNO. del caserío del mismo nombre, aproximadamente a 1 km. al OSO. de la iglesia de Urnieta.
* Hoja 64 (San Sebastián):
  Long. 02º 00' 07" Lat. 43º 14' 43" Alt. 240 m.
  Hoja 64-37 (Urnieta):
  X. 581.032 Y. 4.788.738 Z. 240

DESCRIPCION

La cueva tiene una boca de 1 m. de altura por 0,50 m. de anchura, tras la que existe un salto casi vertical de unos 7 m. En el fondo hay una pequeña sala de la que parten cuatro galerías relativamente estrechas y bajas. Tiene un desarrollo total de 80 m.

HISTORIA

El yacimiento fue descubierto en 1964 por F. LEIZAOLA, quien realizó una recogida superficial. J.M. BARRENA llevó a cabo otra recogida en 1973.

MATERIALES

Restos faunísticos:

Mamíferos: *Rupicapra rupicapra, Ursus, Crocuta crocuta, Panthera spelaea.*

CRONOLOGIA

Pleistoceno Superior.

BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, J.; MARIEZKURRENA, K.; ARMENDARIZ, A. et al. (1982)

SECCION DE ESPELEOLOGIA DE ARANZADI (1969)

GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKOA

II. Haitzuloak

CARTA ARQUEOLOGICA DE GIPUZKOA

II. Cuevas

J. ALTUNA, A. ARMENDARIZ, F. ETXEBERRIA, K. MARIEZKURRENA, X. PEÑALVER & F. ZUMALABE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Historiaurrea Saila / Departamento de Prehistoria
Sociedad de Ciencias ARANZADI Zientzi Elkartea

MUNIBE (Antropologia - Arkeologia)	10. eranskina Suplemento nº 10	DONOSTIA SAN SEBASTIAN	1995	ISSN 1132 - 2217

GILTZARRITURRI

MOTA: Haitzuloa ZB: 593
SIGLA: Gil.
UDALA: Aia
MAPA ZB: 64-3.593

TIPO: Cueva Nº: 593
SIGLA: Gil.
T.M.: Aia
MAPA Nº: 64-3.593

KOKAPENA

* Aia.
* Aiatik Oriora doan errepideko Izkialde baserritik 400 m.tara mendebaldera, Giltzarriturri errekastotik gora eta zehazki ura darion kobaren gainean.
* 64 Orr.(Donostia):
  Long. 02º 09' 25" Lat. 43º 14' 06" Alt. 380 m.
  64-33 Orr.(Aia):
  X. 568.418 Y. 4.787.553 Z. 380

DESKRIBAPENA

Iparraldera begira dagoen haitz-aterbe zabala. 15 m. zabal, 7 m. altu, eta 5 m.ko sakonerakoa, azalera irregularra du, horizontal samarra bukaeran, eta sarrera aldetik maldatsua.

HISTORIA

Aztarnategia 1980an aurkitu zuten Azpeitiko Antxieta Taldeko kideek. Kata bat egin zuten.

MATERIALAK

Harri-industria: 4 marruska; 2 karraskailu; 14 printza.

SEKUENTZIA KULTURALA

¿Goi Paleolitoa?.

SITUACION

* Aia.
* Unos 400 m. al Oeste del caserío Izkialde, situado en la carretera de Aia a Orio, aguas arriba de la regata Giltzarriturri y justamente sobre una cueva-surgencia con toma de agua.
* Hoja 64 (San Sebastián):
  Long. 02º 09' 25" Lat. 43º 14' 06" Alt. 380 m.
  Hoja 64-33 (Aya):
  X. 568.418 Y. 4.787.553 Z. 380

DESCRIPCION

Amplio abrigo rocoso orientado al Norte, de 15 m. de anchura, 7 m. de altura y 5 m. de profundidad, con planta irregular, bastante horizontal en su fondo y con pendiente al exterior de la entrada.

HISTORIA

El yacimiento fue descubierto en 1980 por miembros del Grupo Antxieta de Azpeitia, quienes realizaron una cata.

MATERIALES

Ind. lítica: 4 raspadores; 2 raederas; 14 lascas.

SECUENCIA CULTURAL

¿Paleolítico Superior?.

BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, J.; MARIEZKURRENA, K.; ARMENDARIZ, A. et al. (1982)



GILTZARRITURRI

GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKOA

II. Haitzuloak

CARTA ARQUEOLOGICA DE GIPUZKOA

II. Cuevas

J. ALTUNA, A. ARMENDARIZ, F. ETXEBERRIA, K. MARIEZKURRENA, X. PEÑALVER & F. ZUMALABE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Ford de Gipuzkoa

Historiaurrea Saila / Departamento de Prehistoria
Sociedad de Ciencias ARANZADI Zientzi Elkartea

MUNIBE (Antropologia - Arkeologia)	10. eranskina Suplemento nº 10	DONOSTIA SAN SEBASTIAN	1995	ISSN 1132-2217

ALTXERRI

MOTA: Haitzuloa ZB: 594
SIGLA: AI.
UDALA: Aia
MAPA ZB: 64-1.594

TIPO: Cueva Nº: 594
SIGLA: AI.
T.M.: Aia
MAPA Nº: 64-1.594

KOKAPENA

* Aia
* Orioko Ubegun auzoan, Altxerri baserriaren atzean, harrobi zahar baten ebakian.
* 64. Orr.(Donostia):
  Long. 02º 07' 59" Lat. 43º 16' 08" Alt. 20 m.
  64-26. Orr.(Aia):
  X. 570.319 Y. 4.791.199 Z. 20

DESKRIBAPENA

Terziarioko oinarriko karaitzetan zulatua dago haitzuloa. Karaitz hauek ongi estratifikatuta daude eta diaklasa ugari azaltzen dute. Sarrera naturala jalkinez estalia dago. Oraingo sarrera bestearen ondoan dago eta metro bateko diametroa duen zulo bat da. Haitzuloaren atariko lehen zatian, pasaera oztopatzen duten haitz handi batzuk eta estalagmita ugari topa ditzakegu lurrean. Beste leku batzuetan, urak gelditu gabe garraiatzen duen buztinaren jalkitzeak zorua berdintzen du.

Atari honen ondoren datorren galerian banatzen da garrantzi handia duen labarretako arte irudi multzo bat.

Lehenengo irudi-multzoa, non gehiengoa grabatua dagoen, sarreratik 100 bat metrotara aurkitzen da. Ia eta Ib deituriko multzoak dira.

Lehenengo multzo honetatik Mendebaldera okertzen den beste galeria bat ateratzen da, sarrerakoa bainan estuagoa. Estratoen norabidea jarraitzen du eta II.tik VII. arteko multzoak kokatzen dira bertan. Hauetan grabatuekin batera margotutako irudiak ugariak dira. Tamalez margoak zenbait kasutan ezereztu edo guztiz galdu dira hormaren hezetasunarengatik dirudienez. Horrela gertatu da Igo multzotik 12 m. eskasetara dauden II. multzoko goiko irudiekin. II. multzoaren parean III. dago. Aurrerago, II. multzoko azken irudietatik 4 metrotara eta galeriaren ezkerreko horman, IV. multzoa topa dezakegu. Leku honetan galeria 10 metrotako zulo batera jaisten da. Bertatik, haseran bi bisonte-irudi soilik gordetzen dituzten beheko galerietara pasa daiteke. Leze horretara jaisteko aldapan VII. multzoko irudiak daude. Gehienak jaitsieraren ezkerrean dagoen estratifikapen plano zabal batean eginak daude. Lezerako jaitsieraren gainean zubi moduko sapai estu bat dago eta bertaraino iritsi behar da V. eta VI. multzoetako irudiak ikusteko. IV. multzoa kokatuta dagoen lekutik eta irudien bestaldeko labarretik igoaz iristen gara V. eta VI. multzo horietara.

SITUACION

* Aia.
* Detrás del caserío Altxerri, próximo al barrio Ubegun de Orio, en el frente de una antigua cantera.
* Hoja 64 (San Sebastián):
  Long. 02º 07' 59" Lat. 43º 16' 08" Alt. 20 m.
  Hoja 64-26 (Aya):
  X. 570.319 Y. 4.791.199 Z. 20

DESCRIPCION

La cueva se abre en calizas de la base del Terciario, bien estratificadas y con numerosas diaclasas. La boca natural está taponada por sedimentos. La actual está junto a la anterior y consiste en un pequeño agujero de aproximadamente 1 m. de diámetro. A la entrada de la cueva, en el primer tramo del vestíbulo, hay grandes bloques caídos y estalagmitas que cubren el suelo, haciéndolo muy accidentado. En otras zonas la sedimentación de la arcilla acarreada por la constante infiltración ha regularizado el suelo.

Existe un importante conjunto de arte rupestre, distribuido por la galería interior que sigue a dicho vestíbulo.

El primer grupo de figuras, en su mayoría grabadas, se encuentra a unos 100 m. de la entrada. Son los conjuntos Ia y Ib.

De este primer grupo de figuras, la cueva se prolonga en una galería que tuerce hacia el Oeste, más estrecha que la que conduce desde la entrada al grupo I. Sigue la dirección de los planos de estratificación y en ella están los grupos II al VII. En estos grupos abundan las pinturas junto a los grabados. La humedad de muchas de las paredes donde fueron realizadas aquéllas parece haber sido la causa de que en muchos casos la pintura se haya desvanecido o perdido casi totalmente. Así ocurre con las pinturas superiores del grupo II, situadas a sólo 12 m. del grupo I. Frente al grupo II, se halla el III. Más adelante, a unos 4 m. de distancia de las últimas figuras del grupo II y también en el muro izquierdo de la galería, se halla el grupo IV. En este punto, la galería baja a una sima de unos 10 m. de profundidad que da acceso a otras galerías inferiores, en las cuales sólo existen dos figuras de bisonte, situadas al comienzo de las mismas. En la rampa de descenso a dicha sima se hallan las figuras del grupo VII, casi todas ellas realizadas en un amplio plano de estratificación, situado a la izquierda del citado descenso. Sobre este descenso hay un techo, relativamente estrecho, a modo de puente, al que hay que llegar para contemplar las figuras de los grupos V y VI. Se llega a él desde la zona donde se encuentra el grupo IV, ascendiendo por el muro opuesto al de las figuras.

V. multzoko irudiak lehen aipatutako zubirako bidea den arku estuan hasten dira. Honaino iritsiz gero iparraldeko paretan (eskuinaldeko estratoetan) V. multzoko irudiak ikus daitezke, eta estrato beren hegoaldean VI. multzokoak.

Haitzuloaren sarreran aztarnategi bat dago, oztopo handiak dituelako orain arte industu ez dena.

HISTORIA

1955ean harrobi baten leherketak guztiz itxita zegoen jatorrizko sarreratik metro gutxitara zulo berri bat ireki zuen. Labarretako Santutegia T. ARANZADI, J. MIGLIACCIO eta J.C. VICUÑA-k aurkitu zuten 1963ko Urriaren 25ean. BARANDIARANGO J.M, J. ELOSEGUI eta F. FERNANDEZ G. DE DIEGO-k kata bat egin zuten 1964an.

MATERIALAK

Kata:

Harri-industria: Marruska 1 ; punta 1; ijelki 1; printza 1.

Labarretako artea

Multzoz antolatutako haitzuloko irudiak (grabatuak eta beltzez margotuak) hauek dira:

Ia Multzoa: ikurrak, bisontea, glotoia, basahuntza, giza-antzekoa, azeria, 2 arrain, 2 ¿saiga?, zaldia, orein emea eta marrak.

Ib Multzoa: bisonteak, basahuntza, elur-oreina, ikurrak, marrak, arraina, giza-antzekoa, ¿azeria?, ¿erbia? eta ¿arraina?

II. Multzoa: bisonteak, basahuntzak, uroa eta marrak.

III. Multzoa: bisontea, ikurra eta marrak.

IV. Multzoa: bisonteaks, arku-ikurra eta ¿oreina?

V. Multzoa: bisonteak, marrak, basahuntza, sarrioa eta zaldia.

VI. Multzoa: bisonteak, elur-oreinak y serpentiforme.

VII. Multzoa: bisonteak, zaldia, oreina, uroa eta ¿behiki handia?

2 bisonte gehiago aurkitu berriak VII Multzoaren azpian dagoen leizearen behekaldean eta sarrerako galerian gainean zintzilikatua dagoen gelan beste bisonte bat.

SEKUENTZIA KULTURALA

Goi-Azken Magdalen Aldia.

OHARRAK

Egun, haitzuloa publikoarentzat itxia dago. Aranzadi Zientzi Elkarteko Prehistoria Sailak zaintzen duelarik. Aurrehistorialari edo benetazko interesa baieztatzen duten pertsonak sartzen dira soilik.

Las figuras del grupo V comienzan en el mismo estrecho arco que da acceso al puente antes mencionado. Una vez en éste, pueden contemplarse en los diversos frentes de estratos cortados de la derecha o muro norte, las figuras del grupo V, y en los mismos planos de estratificación del muro contrapuesto o sur, las del grupo VI.

En la entrada de la cueva existe un yacimiento arqueológico, que no se ha excavado por las dificultades que entraña.

HISTORIA

La cueva fue descubierta en 1955 por la explosión de una cantera, que abrió un boquete artificial a pocos metros de la entrada natural, taponada completamente. El santuario rupestre fue descubierto el 25 de Octubre de 1962 por T. ARANZADI, J. MIGLIACCIO y J.C. VICUÑA. En 1964, J.M. DE BARANDIARAN, J. ELOSEGUI y F. FERNANDEZ G. DE DIEGO realizaron una cata cerca de la entrada.

MATERIALES

Cata:

Ind. lítica: 1 raspador; 1 punta; 1 lámina; 1 lasca.

Arte rupestre

Las figuras del interior (grabados y pinturas en negro), ordenadas por grupos, son:

Grupo Ia: signos, bisonte, glotón, cabra, antropomorfo, reno, zorro, 2 peces, 2 ¿saigas?, caballo, cierva y rayados.

Grupo Ib: bisontes, cabra, reno, signos, rayados, pez, antropomorfo, ¿zorro?, ¿liebre? y ¿pez?

Grupo II: bisontes, cabras, uro y rayados.

Grupo III: bisonte, signo y rayado.

Grupo IV: bisontes, signo arqueado y ¿ciervo?

Grupo V: bisontes, rayados, cabra, sarrio y caballo.

Grupo VI: bisontes, renos y serpentiforme.

Grupo VII: bisontes, caballo, ciervo, uro y ¿gran bóvido?

2 bisontes más de último descubrimiento en la base de la sima situada bajo el grupo VII y un bisonte en la sala superior colgada actualmente sobre la galería de acceso a las figuras.

SECUENCIA CULTURAL

Magdaleniense Superior-Final.

OBSERVACIONES

Actualmente la cueva se encuentra cerrada al público. Su custodia corre a cargo del Dpto. de Arqueología Prehistórica de la Sociedad Aranzadi. Sólo se permite la entrada a prehistoriadores o personas que acrediten verdadero interés.

BIBLIOGRAFIA

ALONSO DEL REAL, C. (1974)

ALONSO DEL REAL, C. (1986)

ALTUNA, J. (1972)

ALTUNA, J. (1975)

ALTUNA, J. (1978c)

ALTUNA, J. & APELLANIZ, J. M. (1976)

ALTUNA, J. & APELLANIZ, J. M. (1989)

ALTUNA, J.; MARIEZKURRENA, K.; ARMENDARIZ, A. et al. (1982)

APELLANIZ, J.M. (1982)

BARANDIARAN, I. (1967c)

BARANDIARAN, I. (1970b)

BARANDIARAN, J.M. DE (1964c)

BELTRAN, A. (1966)

BELTRAN, A. (1968)

FERNANDEZ GARCIA DE DIEGO, F. (1966)

LEROI-GOURHAN, A. (1971)

RAT, P. & DELINGETTE, A. (1964)



ALTXERRI

GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKOA

II. Haitzuloak

CARTA ARQUEOLOGICA DE GIPUZKOA

II. Cuevas

J. ALTUNA, A. ARMENDARIZ, F. ETXEBERRIA, K. MARIEZKURRENA, X. PEÑALVER & F. ZUMALABE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foru de Gipuzkoa

Historiaurrea Saila / Departamento de Prehistoria
Sociedad de Ciencias ARANZADI Zientzi Elkartea

MUNIBE (Antropologia - Arkeologia)	10. eranskina Suplemento nº 10	DONOSTIA SAN SEBASTIAN	1995	ISSN 1132-2217

AITZBITARTE II

MOTA: Haitzuloa ZB: 595
SIGLA: Ait.II.
UDALA: Errenteria
MAPA ZB: 64-2.595

TIPO: Cueva Nº: 595
SIGLA: Ait.II.
T.M.: Errenteria
MAPA Nº: 64-2.595

KOKAPENA

* Errenteria, Landarbaso auzoa.
* Aizbitarte mendiaren HM.aldeko magalean, Landarbaso errekaren gainean, 8 m.tara.
* 64 Orr.(Donostia):
  Long. 01º 53' 39" Lat. 43º 15' 46" Alt. 216 m.
  64-32 Orr.(Errenteria):
  X. 589.742 Y. 4.790.770 Z. 216

DESKRIBAPENA

M.aldera zuzendua dagoen haitzuloaren sarrera, mendiaren maldatik eroritako jalkinekin estalita zegoen. Sarrera honek 2,50 m.ko zabalera eta 0,75 m.ko altuera du eta bitan banatua aurkitu zen. Egun, material arkeologikoen lapurreta galerazteko, murru baten bidez itxia eta ezkutatua dago. Beherantzako sarrera duen galeriak atalondo zabal batera jotzen du; honek ere zoru inklinatua du eta zenbait galeriatan banatzen da 200 m.tako luzera guztira osatuaz.

HISTORIA

A. LABURU eta J.M. MERINO-k aurkitu zuten 1961ean,eta urte berean J. LOUVELLI eta I. SANCHEZ-ekin batera, azaleko miaketa bat egin zuten eta zenbait harri eta hezurrezko materialak jaso zituzten. Geroztik, jende askok bisitatu izan du haitzuloa eta baita kontrolik gabe prehistoriako material asko atera ere.

MATERIALAK

Harri-industria: 8 marruska ; 14 zulakaitz; 86 Noailles-ko zulakaitz; 10 karraskailu; bizkardun ijelkitxo 1; ukitutako 12 printza; gune 1; 2 gune-ertz; 5 ijelkitxo; 102 printza.

Hezur-industria: Isturitz erako punta 1; espatula 1; 2 zizeilu.

Fauna-hezurrak

Ugaztunak: *Bos primigenius/Bison priscus.*

SEKUENTZIA KULTURALA

Perigord Aldikoa.

OHARRAK

Haitzuloa aurkitu zenetik ateratako material gehienak, bilduma pribatuetan daudenak, Paleolitokoak dira. Hai-

SITUACION

* Errenteria, barrio de Landarbaso.
* En la ladera SO. del monte Aitzbitarte, unos 8 m. sobre la regata Landarbaso.
* Hoja 64 (San Sebastián):
  Long. 01º 53' 39" Lat. 43º 15' 46" Alt. 216 m.
  Hoja 64-32 (Rentería):
  X. 589.742 Y. 4.790.770 Z. 216

DESCRIPCION

La boca de la cueva, orientada al Oeste, se encontraba muy obstruida por derrubios procedentes de la ladera del monte. Esta boca, que medía 2,50 m. de ancho por 0,75 m. de alto y estaba dividida en dos, se encuentra actualmente tapiada y camuflada para impedir el pillaje de materiales arqueológicos. La galería de entrada, descendente, da a un amplio vestíbulo, de suelo también inclinado, que se ramifica en varias galerías, con una longitud de unos 200 m.

HISTORIA

El yacimiento fue descubierto en 1961 por A. LABURU y J.M. MERINO, quienes ese mismo año, acompañados por J. LOUVELLI e I. SANCHEZ, realizaron una prospección superficial en la que recogieron diversos materiales líticos y óseos. Posteriormente, la cueva ha sido visitada por muchas otras personas, algunas de las cuales han extraído abundantes materiales prehistóricos de forma incontrolada.

MATERIALES

Ind. lítica: 8 raspadores; 14 buriles; 86 buriles de Noailles; 10 raederas; 1 laminilla con dorso; 12 lascas retocadas; 1 núcleo; 2 flancos de núcleo; 5 laminillas; 102 lascas; 1 núcleo; 2 flancos de núcleo.

Ind. ósea: 1 punta de tipo isturitzense; 1 espátula; 2 cinceles.

Restos faunísticos:

Mamíferos: *Bos primigenius/Bison priscus.*

SECUENCIA CULTURAL

Perigordiense.

OBSERVACIONES

Los materiales extraídos de la cueva desde su descubrimiento, la mayoría en colecciones privadas, son de

tzuloaren zonalde sakon batetik hartuak izan dira. Hara sapaian dagoen tximini batetik erortzen dira harri eta lurrarekin batera. Aztarna guzti hauek justu gainean dagoen Aitzbitarte IIIko aztarnategitik erortzen dira benetan. Goiko haitzuloa, J. ALTUNA ari da industen orain bertan eta Perigord aldiko material ugari ematen ari da.

época paleolítica. Se han recogido en una zona profunda de la caverna en cuyo techo existe una chimenea por donde caen, acompañados de tierra y piedras. Todo este material procede, en realidad, del relleno de la cueva Aitzbitarte III, situada inmediatamente por encima, donde las excavaciones actualmente en curso, dirigidas por J. ALTUNA, han detectado, entre otros, un importante nivel del Perigordiense.

BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, J. (1972)

ALTUNA, J.; MARIEZKURRENA, K.; ARMENDARRIZ, A. et al. (1982)

ARMENDARIZ, A. & ETXEBERRIA, F. (1983)

BARANDIARAN, I. (1967c)

MUJIKA, J.A. (1983)

PUIG Y LARRAZ, G. (1894)

SECCION DE ESPELEOLOGIA DE ARANZADI (1969)



AITZBITARTE II

GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKOA
II. Haitzuloak

CARTA ARQUEOLOGICA DE GIPUZKOA
II. Cuevas

J. ALTUNA, A. ARMENDARIZ, F. ETXEBERRIA, K. MARIEZKURRENA, X. PEÑALVER & F. ZUMALABE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Historiaurrea Saila / Departamento de Prehistoria
Sociedad de Ciencias ARANZADI Zientzi Elkartea

MUNIBE (Antropologia - Arkeologia)	10. eranskina Suplemento nº 10	DONOSTIA SAN SEBASTIAN	1995	ISSN 1132-2217

AITZBITARTE III

MOTA: Haitzuloa ZB: 596
SIGLA: Ait.III.
UDALA: Errenteria
MAPA ZB: 64-2.596

TIPO: Cueva Nº: 596
SIGLA: Ait.III.
T.M.: Errenteria
MAPA Nº: 64-2.596

KOKAPENA

* Errenteria, Landarbaso auzoa.
* Aizbitarte mendiaren HM.aldeko magalean, Landarbaso errekaren gainean, 12 m.tara.
* 64 Orr.(Donostia):
  Long. 01º 53' 39" Lat. 43º 15' 46" Alt. 220 m.
  64-32 Orr.(Errenteria):
  X. 589.743 Y. 4.790.777 Z. 220

SITUACION

* Errenteria, barrio de Landarbaso.
* En la ladera SO. del monte Aitzbitarte, unos 12 m. sobre la regata Landarbaso.
* Hoja 64 (San Sebastián):
  Long. 01º 53' 39" Lat. 43º 15' 46" Alt. 220 m.
  Hoja 64-32 (Rentería):
  X. 589.743 Y. 4.790.777 Z. 220

DESKRIBAPENA

HM.aldera zuzendua dagoen kobazuloaren sarrerak, 9,5 m.ko zabalera eta 4,5 m.tako altuera du. Jarraian, 40 m. luze eta 16 m. zabal duen atari zabal bat aurki daiteke, nondik zenbait galeria irteten diren, 300 m.tako garapena lortu arte. Aztarnategiaren zati garrantzitsu bat suntsitua suertatu da xixen hazleku modura ustiatua izan baita urte askotan zehar.

DESCRIPCION

La cueva tiene una boca de 9,5 m. de anchura y 4,5 m. de altura, orientada al SO., a la que sigue un gran vestíbulo de unos 40 m. de longitud y 16 m. de anchura, del que parten galerías interiores hasta alcanzar un desarrollo total de 300 m. Buena parte del yacimiento existente en el vestíbulo ha sido destruido por la explotación de un criadero de champiñón que funcionó durante años en el lugar.

HISTORIA

M. DEL VALLE-k (Lersundiko Konteak) aurkitu zuen 1892 an. 1917an H. BREUIL-ek egin zituen indusketak, eta 1950ean berriz, J. GOMEZ DE LLARENA, P. RODRIGUEZ ONDARRA eta M. RUIZ DE GAONA-k. 1964an, J.M. DE BARANDIARAN-ek azaleko miaketa bat burutu zuen. 1985 ezkeroztik, J. ALTUNA ari da bera industen.

HISTORIA

El yacimiento fue descubierto en 1892 por M. DEL VALLE (Conde de Lersundi) y excavado en 1917 por H. BREUIL, y en 1950 por J. GOMEZ DE LLARENA, P. RODRIGUEZ ONDARRA y M. RUIZ DE GAONA. En 1964, J.M. DE BARANDIARAN realizó una prospección superficial. La cueva está siendo excavada, desde 1985, por J. ALTUNA.

MATERIALAK

Ikertzen.

MATERIALES

En estudio.

SEKUENTZIA KULTURALA

Perigord V Aldia, Solutré Aldia.

SECUENCIA CULTURAL

Perigordiense V, Solutrense.

KRONOLOGIA

V.Maila: 24.910 - 770 B.P. (I-15208). Perigord V Aldia.
V.Maila: 23.230 - 330 B.P. (Ua-2243). Perigord V Aldia.
VI.Maila: 25.380 - 430 B.P. (Ua-2244). Perigord V Aldia.
VI.Maila: 21.130 - 290 B.P. (Ua-1917). Perigord V Aldia.
VI.Maila: 24.920 - 410 B.P. (Ua-2245). Perigord V Aldia.
VI.Maila: 24.545 - 415 B.P. (Ua-2626). Perigord V Aldia.
VI.Maila: 24.635 - 475 B.P. (Ua-2627). Perigord V Aldia.
VI.Maila: 23.830 - 345 B.P. (Ua-2628). Perigord V Aldia.

CRONOLOGIA

Nivel V: 24.910 - 770 B.P. (I-15208). Perigordiense V.
Nivel V: 23.230 - 330 B.P. (Ua-2243). Perigordiense V.
Nivel VI: 25.380 - 430 B.P. (Ua-2244). Perigordiense V.
Nivel VI: 21.130 - 290 B.P. (Ua-1917). Perigordiense V.
Nivel VI: 24.920 - 410 B.P. (Ua-2245). Perigordiense V.
Nivel VI: 24.545 - 415 B.P. (Ua-2626). Perigordiense V.
Nivel VI: 24.635 - 475 B.P. (Ua-2627). Perigordiense V.
Nivel VI: 23.830 - 345 B.P. (Ua-2628). Perigordiense V.

BIBLIOGRAFIA

ALTUNA, J. (1972)

ALTUNA, J. (1992b)

ALTUNA, J.; MARIEZKURRENA, K.; ARMENDARIZ, A. et al. (1982)

BARANDIARAN, I. (1967c)

BARANDIARAN, I. (1973b)

BARANDIARAN, J.M. DE (1961~)

ELOSEGUI, J. (1947-48)

HARLE, E. (1908a)

MUJIKA, J.A. (1983)

PUIG Y LARRAZ, G. (1894)



AITZBITARTE III

GIPUZKOAKO KARTA ARKEOLOGIKOA

II. Haitzuloak

CARTA ARQUEOLOGICA DE GIPUZKOA

II. Cuevas

J. ALTUNA, A. ARMENDARIZ, F. ETXEBERRIA, K. MARIEZKURRENA, X. PEÑALVER & F. ZUMALABE

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Historiaurrea Saila / Departamento de Prehistoria
Sociedad de Ciencias ARANZADI Zientzi Elkartea

MUNIBE (Antropologia - Arkeologia)	10. eranskina Suplemento nº 10	DONOSTIA SAN SEBASTIAN	1995	ISSN 1132-2217

AITZBITARTE IV

MOTA: Haitzuloa ZB: 597
SIGLA: Ait. IV.
UDALA: Errenteria
MAPA ZB: 64-2.597

TIPO: Cueva Nº: 597
SIGLA: Ait. IV.
T.M.: Errenteria
MAPA Nº: 64-2.597

KOKAPENA

* Errenteria, Landarbaso auzoa.
* Aizbitarte mendiaren HM.aldeko magalean, Landarbaso errekaren gainean, 20 m.tara.
* 64 Orr. (Donostia):
  Long. 01º 53' 39" Lat. 43º 15' 46" Alt. 228 m.
  64-32 Orr.(Errenteria):
  X. 589.751 Y. 4.790.780 Z. 228

SITUACION

* Errenteria, barrio de Landarbaso.
* En la ladera SO. del monte Aitzbitarte, unos 20 m. sobre la regata Landarbaso.
* Hoja 64 (San Sebastián):
  Long. 01º 53' 39" Lat. 43º 15' 46" Alt. 228 m.
  Hoja 64-32 (Rentería):
  X. 589.751 Y. 4.790.780 Z. 228

DESKRIBAPENA

Haitzuloak sarrera zabala du, 17 m.ko zabalera eta 5 m.ko altuerakoa hain zuzen, HM.aldera zuzendua. Jarraian aztarnategia kokatzen den atalondo handi bat aurkitzen da eta bertatik bi galeria abiatzen dira: bata, horizontala, I.aldera zuzendua; bestea, beherantzakoa, sarbide zailekoa, IM.aldera zuzendua lehenengo zatian. Galeria hauetan, I.aldera zuzendua dagoenean soilik aurkitu dira *U. spelaeus-en* hezur bakar batzu.

DESCRIPCION

La cueva tiene una amplia entrada, de 17 m. de anchura por 5 m. de altura, orientada al SO. Sigue un gran vestíbulo, donde se encuentra el yacimiento, del que parten dos galerías: una horizontal en dirección Norte y otra descendente, de más difícil acceso, en dirección NO., en su primer tramo. En estas galerías no se ha encontrado más que muy escasos huesos de *U. spelaeus,* en la que va hacia el Norte.

HISTORIA

